

EUSKAL MEZA, 2020 ABENDUAK 27/DECEMBER 27, 2020
EGUBERRI II IGANDEA-FAMILIA SANTUAREN IGANDEA/
CHRISTMAS II SUNDAY-FEAST OF THE HOLY FAMILY (B)
MEZA SANTUA- ORDINARY OF THE MASS

HASIERAKO ABESTIA/ENTRANCE SONG

<p>1. Haur eder baten bila gabiltza zorutzen ta izarrak esan digu galdetzeko hemen. Jaungoikoaren herri maite, Jerusalem, esan zaiguzu laister Jesus non jaio den. (Bi)</p> <p>2. Artzai buru txuri bi, Anton eta Peru, Belengo estalpera etorri zaizkigu. Sartu dira barrena, Manueltxongana, eskeintza egin diote arkumetxo bana. (Bi)</p>	<p>1. Looking for a handsome child Like crazy we are going around And the star has told us To ask for him here. God's loving People, Jerusalem. Let us know quickly Where is Jesus born. (Bis)</p> <p>2. Two bold shepherds, Tony and Pete, To Bethlehem cave Have arrived. They came in, To see Emmanuel, And offer him Each a lamb. (Bis)</p>
--	---

HAUR EDER BATEN BILA



HASIERAKO OHIKUNEA-INTRODUCTORY RITES

<p>† Aitaren, eta + Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. ⊙ Amen.</p> <p>Agurra</p> <p>† Jaungoiko gure Aitaren, eta Jesukristo gure Jaunaren grazia eta bakea zuekin.</p> <p>⊙ Bedeinkatua Jaungoikoa, Jesukristo gure Jaunaren Aita.</p>	<p>† In the Name of the Father, + and of the Son, and of the Holy Spirit. ⊙ Amen.</p> <p>Greeting</p> <p>† Grace to you and peace from God our Father and the Lord Jesus Christ.</p> <p>⊙ And with your spirit.</p>
---	--

DAMU OTOITZA- PENITENTIAL RITE

<p>† Senide maiteok, aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santu hauek ospatzeko gai izan gaitezen.</p> <p>† Jesus Jauna, bihotz urratuak salbatzera bidalia: erruki, Jauna. ⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† Jesus Jauna, bekatariei dei egitera etorria: Kristo, erruki. ⊙ Kristo, erruki.</p> <p>† Jesus Jauna, gure alde otoitz egiteko, Aitaren eskuinaldean zaituguna: erruki, Jauna. ⊙ Erruki, Jauna.</p> <p>† Erruki dakiguela Jainko guztiz ahaltsua eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara. ⊙ Amen.</p>	<p>† Brothers and sisters let us acknowledge our sins, and so prepare ourselves to celebrate the sacred mysteries.</p> <p>† You raise the dead to life in the Spirit: Lord, have mercy. ⊙ Lord, have mercy.</p> <p>† You bring pardon and peace to the sinner: Christ, have mercy. ⊙ Christ, have mercy.</p> <p>† You bring light to those in darkness: Lord, have mercy. ⊙ Lord, have mercy.</p> <p>† May almighty God have mercy on us, forgive us our sins, and bring us to everlasting life. ⊙ Amen.</p>
--	--

AINTZA ZERUETAN JAINKOARI/GLORY TO GOD IN THE HIGHEST

<p>Aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean Haren gogoko gizakiei. Hain handi eta eder zaitugulako, gora Zu, bedeinkatua Zu, gorespen Zuri, ahuspez agur, eskerrak Zuri. Jainko Jauna, zeruko Errege, Jainko Aita guztialduna. Jauna, Seme bakar, Jesu Kristo, Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots, Aitaren Seme: Zuk kentzen duzu munduko bekatua; erruki, Jauna; Zuk kentzen duzu munduko bekatua; entzun gure deia. Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu; erruki, Jauna. Zu bakarrik Santua, Zu bakarrik Jauna, Zu bakarrik Goi-goikoa, Jesu</p>	<p>Glory to God in the highest, and peace to His people on earth. Lord God, heavenly King, Almighty God and Father, we worship You, we give You thanks, we praise You for Your glory. Lord Jesus Christ, only Son of the Father, Lord God, Lamb of God, You take away the sin of the world: have mercy on us; You are seated at the right hand of the Father: receive our prayer. For You alone are the Holy One, You alone are the Lord, You alone are the Most High,</p>
---	--

Kristo, Espiritu Santuarekin Jainko Aitaren argitan.
Amen.

Jesus Christ, with the Holy Spirit, in
the glory of the Father. Amen.

MEZAKO OTOITZA-OPENING PRAYER

† Egin dezagun otoitz
+ Jainko gure Aita, Familia Santua eman diguzu eredu
bikain; egiguzu, gure familietan ere, familia-bizitza
zintzoan eta elkar maitasunean tinko biziz, betiko
zoriona iritxi dezagula.
Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez, zurekin
eta Espiritu Santuarekin batean, Jainko eta Errege bizi
bait da gizaldi ta gizaldietan.
☉ Amen.

† Let us Pray
O God, who were pleased to give us the shining
example of the Holy Family, graciously grant
that we may imitate them in practicing the
virtues of family life and in the bonds of charity,
and so, in the joy of your house, delight one day
in eternal rewards.
Through our Lord Jesus Christ, your Son, who
lives and reigns with you in the unity of the Holy
Spirit, one God, forever and ever.
☉ Amen.

HITZAREN LITURGIA-LITURGY OF THE WORD

LEHENENGO IRAKURGAIA-FIRST READING

Ben Sirak Liburua/ Sirach 3:2-6,12-14

Ben Sirak Liburutik

2 Jaunak seme-alaben gaisetik errespetarazten du aita,
amaren aginpidea ezartzen umeen gain. 3 Aita
ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu,
4 ama errespetatzen duenak altxorra metatzen.
5 Aita ohoratzen duenak bere seme-alabengan izango
du poza, otoitz egitean Jaunak entzun egingo dio
eskaria. 6 Aita errespetatzen duenak bizitza luzea
izango du, Jaunak esana egiten duenak atsegin emango
amari. 12 Seme, zaindu aita bere zahartzaroan, ez eman
nahigaberik bizi den artean. 13 Burua galtzen badu ere,
izan barkabera; ez iraindu, indarrez betea zaudela eta.
14 Ez du Jaunak ahaztuko aitari on egina, zeure
bekatuen ordainetan hartuko dizu kontuan.

☐ Jaunak esana!

☉ Eskerrak zuri Jauna!

From the Book of Sirach

God sets a father in honor over his children; a
mother's authority he confirms over her sons.
Whoever honors his father atones for sins, and
preserves himself from them. When he prays, he is
heard; he stores up riches who reveres his mother.
Whoever honors his father is gladdened by
children, and, when he prays, is heard. Whoever
reveres his father will live a long life; he who
obeys his father brings comfort to his mother. My
son, take care of your father when he is old; grieve
him not as long as he lives. Even if his mind fail,
be considerate of him; revile him not all the days
of his life; kindness to a father will not be
forgotten, firmly planted against the debt of your
sins—a house raised in justice to you.

☐ The Word of the Lord!

☉ Thanks be to God!

ERANTZUN-SALMOA/RESPONSORIAL PSALM 128:1-2, 3, 4-5

R. Zorionekoa Jaunari begirune diona eta haren bidetik dabilena!

Zorionekoa Jaunari begirune diona eta haren bidetik dabilena!
Zeure lanaren fruituaz biziko zara eta zoriontsu izango, dena ongi zaizu joango. **R.**

Emaztea mahatsondo emankorraren antzeko izango duzu etxe-txokoan;
seme-alabak olibondo gazteen pareko zeure mahai inguruan. **R.**

Horra Jaunari begirune dionarentzat zer bedeinkazio!
Bedeinka zaitzala Jaunak Siondik, goza zaitetzela bizitza osoan Jerusalemen zorionaz. **R.**

R. Blessed are those who fear the Lord and walk in his ways.

Blessed is everyone who fears the LORD, who walks in his ways!
For you shall eat the fruit of your handiwork; blessed shall you be, and favored. **R.**

Your wife shall be like a fruitful vine in the recesses of your home; your children like olive plants around your table. **R.**

Behold, thus is the man blessed who fears the LORD.
The LORD bless you from Zion: may you see the prosperity of Jerusalem all the days of your life. **R.**

BIGARREN IRAKURGAIA-SECOND READING

San Paulo Apostoluak Kolosarrei/Colossians 3:12-17

San Paulo Apostoluaren Kolosarrei

Senideok:

12 Jainkoak maitatu eta bere herri santu izateko aukeratu zaituztenez gero, jantz zaitetzete bihozberatasunez, ontasunez, apaltasunez, otzantasunez, pazientziaz. **13** Izan eraman oneko elkarrekin eta barkatu batak besteari, inork inoren aurka zerbait balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. **14** Eta guztien gainetik, jantz zaitetzete maitasunez, hau baita elkartasun betearen lokarria. **15** Kristoren bakea izan bedi nagusi zuen bihotzetan, horretara deitu baitzaituzte Jainkoak gorputz batean elkartuz. Eta izan zaitetzete esker oneko. **16** Bizi bedi oparo zuengan Kristoren mezua. Irakatsi eta zentzarazi elkar jakinduria osoz. Kantatu Jainkoari esker onez eta bihotzez salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak. **17** Eta esan nahiz egin dezazuen guztia, egizue Jesus Jaunaren izenean, honen bidez Jainko Aitari eskerrak emanaz.

- **Jaunak esana!**
- ☉ Eskerrak zuri Jauna!

From the Letter of Saint Paul to the Colossians

Brothers and sisters:
Put on, as God's chosen ones, holy and beloved, heartfelt compassion, kindness, humility, gentleness, and patience, bearing with one another and forgiving one another, if one has a grievance against another; as the Lord has forgiven you, so must you also do. And over all these put on love, that is, the bond of perfection. And let the peace of Christ control your hearts, the peace into which you were also called in one body. And be thankful. Let the word of Christ dwell in you richly, as in all wisdom you teach and admonish one another, singing psalms, hymns, and spiritual songs with gratitude in your hearts to God. And whatever you do, in word or in deed, do everything in the name of the Lord Jesus, giving thanks to God the Father through him.

- **The Word of the Lord!**

☉ Thanks be to God!

ALELUIA-ALLELUIA

R. Aleluia, aleluia.

Kristoren bakea izan bedi nagusi zuen bihotzetan.
Bizi bedi oparo zuengan Kristoren mezua.

R. Aleluia, aleluia.

R. Alleluia, alleluia.

Let the peace of Christ control your hearts; let the word of Christ dwell in you richly.

R. Alleluia, alleluia.

EBANJELIOA-GOSPEL

† Jauna zuekin.

☉ Eta zure espirituarekin.

† Jesukristoren Ebanjelioa San I.(r) en liburutik

☉ Aintza Zuri, Jauna.

† Jaunak esana.

☉ Eskerrak Zuri, Jauna

† The Lord be with you

☉ **And with your spirit**

† A Reading from the Holy Gospel according to **N**

☉ **Glory to you, O Lord.**

† The Gospel of the Lord.

☉ **Praise to you, Lord Jesus Christ.**

Ebanjelioa San Mateoren Liburutik/Matthew 2:13-15,19-23

13 Jakintsuek alde egin ondoren, Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Joseri eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz ihesi Egiptora. Egon han nik esan arte, haurraren bila ibiliko baita Herodes, hilarazteko». **14** Hartu zituen, beraz, Josek haurra eta ama gaez, eta Egiptora alde egin zuen. **15** Han bizi izan zen, Herodes hil arte. Horrela, Jaunak profetaren bidez esana bete zen: *Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari.* **19** Herodes hil ondoren, Joseri Jaunaren aingerua agertu zitzaion ametsetan Egipton, **20** eta esan zion: «Jaiki, hartu haurra eta ama, eta zoaz Israelera, hilak baitira haurra hil nahian zebiltzanak». **21** Hartu zituen Josek haurra eta ama, eta Israelera joan zen. **22** Baina jakin zuen Herodesen ordeaz honen seme Arkelao zegoela Judean errege, eta beldurra sartu zitzaion hara joateko. Eta, ametsetan adierazi zitzaizolarik, Galileara jo zuen, **23** eta Nazaret izeneko herrian jarri zen bizitzen; horrela bete zen Jainkoak profeten bidez esana: «Nazaretarra esango diote».

□ Jaunak esana!

☉ Eskerrak Zuri, Jauna!

When they had departed, behold, the angel of the Lord appeared to Joseph in a dream and said, “Rise, take the child and his mother, flee to Egypt, and stay there until I tell you. Herod is going to search for the child to destroy him.” Joseph rose and took the child and his mother by night and departed for Egypt. He stayed there until the death of Herod, that what the Lord had said through the prophet might be fulfilled, “Out of Egypt I called my son.” When Herod had died, behold, the angel of the Lord appeared in a dream to Joseph in Egypt and said, “Rise, take the child and his mother and go to the land of Israel, for those who sought the child’s life are dead.” He rose, took the child and his mother, and went to the land of Israel. But when he heard that Archelaus was ruling over Judea in place of his father Herod, he was afraid to go back there. And because he had been warned in a dream, he departed for the region of Galilee. He went and dwelt in a town called Nazareth, so that what had been spoken through the prophets might be fulfilled, “He shall be called a Nazorean.”

□ The Word of the Lord!

☉ **Praise to you, Lord Jesus Christ.!**

HOMILIA-HOMILY

SINESMENAREN AITORMENA-PROFESSION OF FAITH

APOSTOLUEN AITORMENA

† Sinisten dut Jaungoiko Aita ahalguztidun,

☉ Sinisten dut, sinisten dut!

† ☉ zeru-lurren egilea. Sinisten dut Haren Seme bakar Jesukristo gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu eta Andre Maria Birjinagandik jaio zena; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean iltzatua, hila eta hobiratu izan zena; infernuetara jaitsi eta hirugarren egunean hilen artetik piztu zena; zeruetara igo eta Aita Jaungoikoaren eskuin aldean jarrikik dagoena; handik biziak eta hilak epaitzera etorriko dena.

☉ Sinisten dut, sinisten dut!

Sinisten dut Espiritu Santua, Eliza santu katolikoa, santuen elkartasuna, bekaturen barkamena, hildakoen piztuera eta betiko bizitza. ☉ Amen.

☉ Sinisten dut, sinisten dut!

APOSTLES' CREED

† I believe in God, the Father almighty,

† ☉ Creator of heaven and earth, and in Jesus Christ, his only Son, our Lord, who was conceived by the Holy Spirit, born of the Virgin Mary, suffered under Pontius Pilate, was crucified, died and was buried; he descended into hell; on the third day he rose again from the dead; he ascended into heaven, and is seated at the right hand of God the Father almighty; from there he will come to judge the living and the dead.

I believe in the Holy Spirit, the holy catholic Church, the communion of saints, the forgiveness of sins, the resurrection of the body, and life everlasting.

☉ Amen.

JAINKO-HERRIAREN OTOITZA-PRAYER OF THE FAITHFUL

+ Brothers and Sisters: Inspired by the example of the Holy Family, let us place our needs before God our Father, rejoicing because Christ has come into the world to share our lives.

1. For our vulnerable populations: God, protect our elderly and those suffering from chronic disease. Provide for the poor, especially the uninsured. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
2. For our local, state, and federal governments: God, help our elected officials as they allocate the necessary resources for combatting this pandemic. Help them to provide more tests. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
3. For our scientific community, leading the charge to understand the disease and communicate its gravity: God, give them knowledge, wisdom, and a persuasive voice. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
4. For the homeless, unable to practice the protocols of social distancing in the shelter system: Protect them from disease and provide isolation shelters in every city. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
5. For Christian missionaries throughout the world, especially in areas with high rates of infection: God, provide them with words of hope, and equip them to love and serve those around them. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

6. For families with young children at home for the foreseeable future: God, help mothers and fathers to partner together creatively for the care and flourishing of their children. For single mothers and fathers, grow their networks of support. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**
7. For frontline health care workers, we thank you for their vocational call to serve us. **We pray to the Lord. Lord Hear Our Prayer.**

+ Lord God of justice and mercy, hear our prayers. Give our beloved dead family members the reward of their labors and grant us your consolation in our loss. We ask this through Christ our Lord.

R/. Amen.

EUKARISTIAREN LITURGIA-EUCHARISTIC LITURGY

ESKAINZA ABESTIA/OFFERTORY SONG

HATOR, HATOR	Come, Come home
<p>Hator, hator mutil etxera gaztaina ximelak jatera, Gabon gaua ospatuzeko aitaren eta amaren ondoan. Ikusiko duk aita barrezka amaren poz ta atseginez. Eragiok, mutil, aurreko danbolin horri. Gaztainak erre artean, gaztainak erre artean, txipli txapla, pum! Gabon gaua pozik igaro daigun.</p>	<p>Come, come, boy, home, Let's have together chestnuts, Let's spend Christmas Eve, By our father and mother. You will see father laughing And mother too full of joy. Turn and turn, boy That chestnuts roaster, As chestnuts are being roasted As chestnuts are being roasted Txipli thapla, pum! We may enjoy this Christmas night.</p>

OPARI ESKAINZA-OFFERTORY

<p>† Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ogi au, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu biziaren ogi. ☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti. † Bedeinkatua Zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa: zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dizugun ardo hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua: hauxe egingo zaigu betiko zorionaren edari. ☉ Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.</p>	<p>† Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the bread we offer you: fruit of the earth and work of human hands, it will become for us the bread of life. ☉ Blessed be God for ever. † Blessed are you, Lord God of all creation, for through your goodness we have received the wine we offer you: fruit of the vine and work of human hands; it will become our spiritual drink. ☉ Blessed be God for ever. † Pray brothers and sisters, that my sacrifice and yours may be acceptable to God, the almighty Father.</p>
---	---

<p>† Senideok: egin dezagun otoitz, guztiok batean, Eliza osoaren oparia Jaungoikoari eskaintzerakoan.</p> <p>☉ Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko.</p>	<p>☉ May the Lord accept the sacrifice at your hands for the praise and glory of his name, for our good and the good of all his holy Church.</p>
--	--

OPARIGAIEN GAINEKO OTOITZA-PRAYER OVER THE GIFTS

<p>† Bakezko opari hau eskaintzean, Jainko Jauna, apalik eskatzen dizugu, Jainkoaren Ama Birjinaren Jose Donearen otoitzez, gure familia guziak gure adiskidetasun eta pakean sendo bizi gaitezela..</p> <p>Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>† We offer you, Lord, the sacrifice of conciliation, humbly asking that, through the intercession of the Virgin Mother of God and Saint Joseph, you may establish our families firmly in your grace and your peace.</p> <p>Through Christ our Lord.</p> <p>☉ Amen.</p>
---	---

EUKARISTI OTOITZA-THE EUCHARISTIC PRAYER

<p>† Jauna zuekin</p> <p>☉ Eta zure espirituarekin.</p> <p>† Gora bihotzak.</p> <p>☉ Jaunagan dauzkagu.</p> <p>† Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.</p> <p>☉ Egoki da eta zuzen.</p> <p>† Egoki da, bai, eta zuzen non-nahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko Ahalguztidun betiereko Horri, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>Gizon egin den Hitzaren misterioan zure aintzaren argi berria sortu da gure bihotzetan. Eta orain, Jainkoa agirian ezagutzen dugularik, berak eramaten gaitu ikusi ezin diren gauzak maitatzera.</p> <p>Horregatik, aingeru eta goi-aingeruekin, eta zeruko talde guziekin etengabe goratarre hau abesten dizugu:</p> <p>☉ Santu, Santu, Santua, diren guztien Jainko Jauna. Zeru-lurak beterik dauzka zure distirak. Hosanna zeru-goienetan! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. Hosanna zeru-goienetan!</p>	<p>† The Lord be with you.</p> <p>☉ And with your spirit.</p> <p>† Lift up your hearts.</p> <p>☉ We lift them up to the Lord.</p> <p>† Let us give thanks to the Lord our God.</p> <p>☉ It is right and just.</p> <p>† It is truly right and just, our duty and our salvation, always and everywhere to give you thanks, Lord, holy Father, almighty and eternal God.</p> <p>For in the mystery of the Word made flesh a new light of your glory has shone upon the eyes of our mind, so that, as we recognize in him God made visible, we may be caught up through him in love of things invisible.</p> <p>And so, with Angels and Archangels, with Thrones and Dominions, and with all the hosts and Powers of heaven,</p> <p>we sing the hymn of your glory, as without end we acclaim:</p> <p>☉ Holy, Holy, Holy Lord God of hosts. Heaven and earth are full of your glory. Hosanna in the highest.</p> <p>Blessed is he who comes in the name of the Lord. Hosanna in the highest.</p>
--	---

EUKARISTIA OTOITZA II-EUCHARISTIC PRAYER II

† Santu zera, bai, Jauna, eta santutasun guztiaren iturri: Santu egizkizu, bada, ogi eta ardo hauek, zure Espiritua isuriz, Jesukristo gure Jaunaren gorputz † eta odol guretzat egin daitezzen.

† Berak, saldu zutenean, eta bere gogoz gurutzera zihoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez, zatitu zuen eta bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA JAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE GORPUTZA DA-TA,
ZUENTZAT EMANGO DENA**

† Afal ondoan, berdin, kaliza harturik, berriz ere eskerrak emanez, bere ikasleei eman zien, esanez:

**HARTZAZUE ETA EDAN GUZTIOK
HONTATIK: HAU NIRE ODOLAREN KALIZA
DA-TA, ITUN BERRI ETA BETIKOAREN
ODOLA, ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT
BEKATUAK BARKATZEKO ISURIKO DENA.
EGIZUE HAU NIRE OROIGARRI**

†Hau da sinesmenaren misterioa.

☉ Ogi ardo hauek hartzean, zure heriotza dugu aitortzen, Zu, Jauna, etorri artean!

† Horregatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztuera gogoratuz, biziaren ogia eta salbamenaren kaliza eskaintzen dizkizugu, Zuri eskerrak emanez, aldarean zure zerbitzari onartu gaituzulako.

† Eta apalik eskatzen dizugu, Kristoren gorputz-odolak hartzen ditugunok Espiritu Santuak bat egin gaitzala.

† Gogoan izan, Jauna, mundu guztian zabaldurik dagoen zure Eliza: Eramazu maitasun osora, **I.** gure Aita Santuarekin, **I.** gure Artzaiarekin eta elizgizon guztiekin batean.

=====

† Gogoan izan, Jauna, (gaur) mundu honetatik Zuregana eraman duzun **I.** zure zerbitzaria.

† You are indeed Holy, O Lord, the fount of all holiness. Make holy, therefore, these gifts, we pray, by sending down your Spirit upon them like the dewfall, so that they may become for us the Body † and Blood of our Lord, Jesus Christ.

† At the time he was betrayed and entered willingly into his Passion, he took bread and, giving thanks, broke it, and gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND EAT OF IT,
FOR THIS IS MY BODY, WHICH WILL BE
GIVEN UP FOR YOU**

† In a similar way, when supper was ended, he took the chalice and, once more giving thanks, he gave it to his disciples, saying:

**TAKE THIS, ALL OF YOU, AND DRINK
FROM IT, FOR THIS IS THE CHALICE OF
MY BLOOD, THE BLOOD OF THE NEW AND
ETERNAL COVENANT, WHICH WILL BE
POURED OUT FOR YOU AND FOR MANY
FOR THE FORGIVENESS OF SINS.
DO THIS IN MEMORY OF ME**

† **The mystery of faith.**

☉ We proclaim your death, O Lord, and profess your Resurrection until you come again.

† Therefore, as we celebrate the memorial of his Death and Resurrection, we offer you, Lord, the Bread of life and the Chalice of salvation, giving thanks that you have held us worthy to be in your presence and minister to you.

† Humbly we pray that, partaking of the Body and Blood of Christ, we may be gathered into one by the Holy Spirit.

† Remember, Lord, your Church, spread throughout the world, and bring her to the fullness of charity, together with **N.** our Pope and **N.** our Bishop and all the clergy.

=====

†Remember your servant **N.**, whom you have called (today) from this world to yourself. Grant that he

<p>Heriotzean zure Semearekin bat egin den hau, piztueran ere Berarekin bat izan dadila.</p> <p>=====</p> <p>† Gogoan izan, Jauna pizteko itxaropenean joan diren gure senideak eta hildako guztiak: har itzazu zeure aurpegiaren argitan.</p> <p>† Erruki zakizkigu, arren, guk guztiok betiko bizitza iritsi dezagun, Jaungoikoaren Ama Maria dohatsuarekin, Jose Santua haren senarrarekin, apostolu santuekin eta, gizaldi guztietan, zure adiskide izan diren santuekin: haiekin batean gorets zaitzagun, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.</p> <p>† Honen bitartez, Honekin eta Honengan, Zuri Aita Jaungoiko ahalguztidun Horri, Espiritu Santuarekin batean, ospe eta aintza guztia gizaldi eta gizaldi guztietan</p> <p>☉ Amen.</p>	<p>(she) who was united with your Son in a death like his, may also be one with him in his Resurrection.</p> <p>=====</p> <p>† Remember also our brothers and sisters who have fallen asleep in the hope of the resurrection and all who have died in your mercy: welcome them into the light of your face.</p> <p>† Have mercy on us all, we pray, that with the blessed Virgin Mary, Mother of God, Joseph her blessed spouse, with the blessed Apostles, and all the Saints who have pleased you throughout the ages, we may merit to be co-heirs to eternal life, and may praise and glorify you through your Son, Jesus Christ.</p> <p>† Through him, and with him, and in him, O God, almighty Father, in the unity of the Holy Spirit, all glory and honor is yours, for ever and ever.</p> <p>☉ Amen.</p>
--	--

JAUNARTEZEKO OHIKUNEA-COMMUNION RITE

<p>† Salbatzaileak agindu eta erakutsiari Jarraituz, beldur gabe esan dezagun:</p> <p>†☉ Gure Aita, zeruetan zarena: santu izan bedi zure izena, etor bedi zure erreinua, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurlean ere.</p> <p>Emaguzu gaur egun honetako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunei barkatzen diegunez gero; eta ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen, baina atera gaitzazu gaitzetik.</p> <p>† Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guztietatik; emaguzu bakea gure egunotan; zure errukiari esker bekatutik garbi bizi gaitezen eta estualdietan sendo, betiko zorionaren itxaropenean, Jesukristo gure salbatzailea noiz etorriko den zai gaudela</p> <p>☉ Zurea duzu erregetza, zureak ospe eta indarra orain eta beti.</p>	<p>† At the Savior’s command and formed by divine teaching, we dare to say:</p> <p>†☉ Our Father, who art in heaven, hallowed be thy name; thy kingdom come, thy will be done on earth as it is in heaven.</p> <p>Give us this day our daily bread, and forgive us our trespasses, as we forgive those who trespass against us; and lead us not into temptation but deliver us from evil.</p> <p>† Deliver us, Lord, we pray, from every evil, graciously grant peace in our days, that, by the help of your mercy, we may be always free from sin and safe from all distress, as we await the blessed hope and the coming of our Savior, Jesus Christ.</p> <p>☉ For the kingdom, the power and the glory are yours now and forever.</p>
--	--

PAKEAREN OHIKUNEA RITE OF THE PEACE

<p>† Jesukristo gure Jauna, Zuk esana da apostoluei: “Bakea uzten dizuet, nire bakea ematen.” Begira zure Elizaren sinesmenari, eta ez gure bekatuei; eta, zure gogoan den bezala, emaitza Elizari bakea,</p>	<p>† Lord Jesus Christ, who said to your Apostles, Peace I leave you, my peace I give you; look not on our sins, but on the faith of your Church, and graciously grant her peace and unity in accordance with your will. Who live and reign forever and ever.</p>
--	---

eman batasuna, Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

☉ Amen.

† **Jaunaren bakea beti zuekin.**

☉ Eta zure espirituarekin.

† **Emaiozue bakea elkarri.**

☉ Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.

Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.

Jaungoikoaren Bildotsa, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: emaguzu bakea.

† **Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Zoriontsuak Jaunaren mahaira deituak!**

☉ Jauna, ni ez naiz inor Zu nire etxean sartzeko, baina esazu hitz bat, eta sendatuko naiz.

† Kristoren Gorputza.

☉ **Amen.**

☉ **Amen.**

† The peace of the Lord be with you always.

☉ **And with your spirit.**

† Let us offer each other the sign of peace.

☉ **Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.**

Lamb of God, you take away the sins of the world, have mercy on us.

Lamb of God, you take away the sins of the world, grant us peace.

† **Behold the Lamb of God; behold him who takes away the sins of the world. Blessed are those called to the supper of the Lamb.**

☉ Lord, I am not worthy that you should enter under my roof, but only say the word and my soul shall be healed.

† The body of Christ.

☉ **Amen.**

JAUNARTZE ABESTIA/COMMUNION HYMN

Gabeko izar	Star of the Night
Gabeko izar argitsuena, piztutzeakin batera, haurtxo eder bat etorri zaigu, gaur arratsean etxera. Ordu ezkeroz etxeko denak, poztu ta zoratzen gera, haurra dalako zerutik honuntz, datorren Jainko berbera.	At the same time the brightest star of the night arises, a cute child has come this evening to our house. Since then, all in the house, Are full of joy, Because this child is the very God Coming down from Heaven.
Alai ta pozik kanta dezagun, haurtxo honen etorrera, gure iluna alaitutzeko jaio dan argi ederra. Gaurtik aurrera atzerri hontan, zorionekuak gera, haurra dalako zerutik honuntz, datorren Jainko berbera.	Let us all joyfully sing The arrival of this child, He is the wonderful light To cheer up our darkness. From today on in this exile We are blessed, Because this child is the very God Coming down from Heaven.

JAUNARTZE ONDORENGO OTOITZA-PRAYER AFTER COMMUNION

<p>+ Aita guztiz ona, sakramentu honen bitartez indarberritu gaituzunok Familia Santuaren erara bizi gaitetzela; lur honetako estualdien ondoren, beraiekin batean betiko bizitza goza dezagun.. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.</p>	<p>+ Bring those you refresh with this heavenly Sacrament, most merciful Father, to imitate constantly the example of the Holy Family, so that, after the trials of this world, we may share their company forever. Through Christ our Lord. R/. Amen.</p>
--	---

BUKAERAKO OHIKUNEA BEDEINKAPENA-FINAL BLESSING

<p>† Jauna zuekin. ◎ Eta zure espirituarekin. † Bedeinka zaitzatela Jaungoiko ahalguztidunak: Aitak eta Semeak + eta Espiritu Santuak. ◎ Amen. † Zoazte Jaunaren bakean. Aleluia, Aleluia ◎ Eskerrak Jainkoari. Aleluia, Aleluia.</p>	<p>† The Lord be with you. ◎ And with your spirit. † May almighty God bless you: the Father, and the Son, + and the Holy Spirit. ◎ Amen. † Go forth, the Mass is ended. Alleluia, Alleluia. ◎ Thanks be to God. Alleluia, Alleluia.</p>
---	---

AZKEN ABESTIA-FINAL SONG

Birjina Maite	Loving Virgin
<p>Birjina maite, lotan dagozure seme laztana, seaskatxo bat ipinizazu gure biotzen kutunai, ongi bai ongi igaro ditzan gabak eta egunak. Polliki polliki ergin zazu egin dezan lo ona."</p>	<p>Loving Virgin Your loving child is asleep Place in a cradle The loving one of our hearts, He may peacefully spend Nights and days. Softly, softly swing him So he may have a peaceful sleep.</p>



Eguberri Zoriontsua!
Merry Christmas!



EGUBERRI ONDOKO IGANDEA B

FAMILIA SAINDUA

Lehen irakurgaia

(Familiako bertuteak)

Zirak zuhurraren liburutik 3, 2-6;12-14

2 Jainkoak aita goresten du seme-alabetan, eta amaren eskubidea azkartzen haurretan. **3** Aita ohoratzen duenak, bere bekatuak ordaintzen ditu, **4** eta ontasunak biltzen dituenaren iduriko da ama goresten duena. **5** Aita ohoratzen duenak bozkario izanen du bere seme-alabetan, eta otoitz egunean entzuna izanen da. **6** Aita goresten duena luzaz biziko da, eta Jaunari obeditzen dionak atsegín emaiten dio amari. **12** Seme, lagunt aita bere zahartasunean, eta ez eman nahigaberik bere bizitzean. **13** Burua galtzen badu, on izan zaite harentzat, eta ez gutiets zure sasoin betean. **14** Aitari eman laguntza ez da ahantziko, eta bekatuen ordain izanen duzu. Atsegabe-egunean Jainkoak gogoan izanen zaitu.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.

Salmoa 127 (128)

Leloa : Zure etxean daudenek, Jauna, Egun guzian zer zoriona!

Dohatsu bai zu Jaunaren beldur bazaudena,
Haren bidetan zabiltzana!
Zure eskuen lanetik duzu jan edana,
Eskutan duzu zoriona!

Zure andrea mahats-ondo bat bezain jori,
Etxe xokoa bozten ari.
Zure semeak oliba-ondo gotor batzu,
Mahainean so dagozkitzu.

Hara nolako zorionean dabilana
Jaunaren beldur den gizona.
Jainkoa lagun, bizi zareno izan urus,
Jerusaleme azkar ikus..

Bigarren irakurgaia

(Elkarrekin Kristo baitan bizi)

Jondoni Paulok Koloziarreri 3,12-21

Haurrideak,

12 Jainkoak hautatu zaituztenaz geroz, haren saildu eta maiteak izaitzeko, Jantz zuen bihotzean urrikalmendua, onezia, apaltasuna, ezintasuna, pazientzia. **13** Elkar jasan zazue eta elkarri barka, zuen arteko arranguririk balinbaduzue. Jaunak barkatu dautzuen bezala, zuek ere barka.

14 Horien guzien gainetik izan maitasuna, hori baita elkartasunaren lokarria. **15** Eta Kristoren bakea izan bedi nagusi zuen bihotzetan, hortara deituak baitzirezte, denak gorputz berean. Eskerrak bihurtuz bizi zaitetzte. **16** Bizi bedi zuen baitan Kristoren hitza bere aberastasun betean: Irakats eta zuzent elkar zuhurtzia osoz. Salmoak, himnoak eta kantika goi-argituak emanez, kanta Jainkoari zuen bihotzetan zuen esker ona. **17** Erranen edo eginen duzuen guzia, egizue Jesus Jaunaren izenean, hunen bidez Jainko Aitari eskerrak emanez. **18** Emazteak, zaudezte zuen senarraren meneko, Jaunaren aitzinean, zuzen den bezala. **19** Zuek, senarrek, maita zuen emazteak, eta ez gogorrek izan heiekin. **20** Zuek, haurrek, egizue zuen burasoen errana gauza guzietan, hori baita on Jaunaren baitan. **21** Zuek, burasoek, ez sumindu zuen haurrak, etsimenduak har ez ditzan.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna.

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia

Zinez Jainko gordea zira, Jainkoa gizonen artean,
Jesus salbatzailea!

.

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Matiuren liburutik 2,13-15.19-23

13 Magoak Betleemetik joan-eta, Jaunaren aingerua Josepi agertu zitzaion ametsetarik, erranez: “Jeiki zaite, har zatzu haurra eta haren ama, eta ihes egizu Egiptorat. Zaude han, nik erran arte; Herodes ibiliko baita haurraren bila, hilarazi nahiz. **14** Jeiki zen Josep, hartu zituen haurra eta haren ama gauaz, eta joan zen Egiptorat. **15** Han egon zen Herodes hil arte. Hola bete zen Jaunak profetaren bidez errana: Egiptotik deitu dut ene Semea. **19** Herodes hil zenean, Jaunaren aingerua Josepi ametsetarik agertu zitzaion, Egipton, **20** eta erran zion: “ Jeiki zaite, har zurekin haurra eta haren ama, eta zoazi Izrael lurralderat, hilak baitira haurrari bizia kendu nahiz zabiltzanak.” **21** Jeiki zen beraz Josep, haurra eta haren ama harturik, joan zen Izrael lurralderat. **22** Bainan, jakinik Arkelao zela Judean errege, bere aita Herodesen ondotik, harat joaiteko beldur izan zen. Eta ametsetan berria harturik, Galilea eskualderat jo zuen, **23** eta Nazaret deitu herri baterat joan zen bizitzera, profetek errana bete zadin: Nazaretarra deituko dute.

Jaunak errana!

Eskerrak Zuri Jauna